


## Euskal AEn biztanle atzerritarren artean amerikarrak dira nagusi

### la 150.000 atzerritar bizi dira

Eustaten datuen arabera, 2016ko urtarrilaren 1ean Euskal AEn 149.348 atzerritar bizi ziren, biztanle guztien % 6,9. Atzerriko biztanleen artean, % 36 amerikarrak dira, Espainia osoan % 23 pasatxo diren bitartean. Multzo honetan biztanle gehienak Boliviakoak, Kolonbiakoak, Nikaraguakoak eta Paraguaikoak –guztiak Hego Amerikakoak– dira. Hauek atzerritar guztien % 18,7 eta amerikarren % 52 dira.

Aitzitik, Euskal AEn bizi diren europarrak atzerritarren % 26,9 dira; Espainian % 45,5. Talde honetan errumaniarrak nabarmentzen dira, atzerritar guztien % 12 dira, eta europarren % 44,1, Espainia osoan baino ia ehuneko 10 puntu gehiago. Ondoren, errumaniarrendatik distantzia handira bada ere, portugaldarrak agertzen dira, Euskal AEn bizi diren europarren % 17ra helduz.

### 1. grafikoa. Atzerritarren nazionalitate-kontingentearen arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika 2016ko urtarrilaren 1ean

Euskal AEn afrikarren proportzioa (% 28) Espainian (% 22,7) baina handiagoa da; ia erdiak (% 49) marokoarrak dira. Euskal Autonomia Erkidegoan bigarren nazionalitate afrikar garrantzitsuena aljeriarra da, % 14,2ra helduz.

Euskal AEko atzerritarren artean, ondoren, txinatar eta pakistandarrak agertzen dira (% 7). Gure artean dauden ia asiar bakarrak direla azpimarratu behar da, asiar guztien % 79 baitira.

Hiru lurraldeak aintzat harturik, nazionalitateen banaketa, kontinenteen arabera, askotarikoa da. Araban afrikarrak dira nagusi; Bizkaian, berriz, amerikarrak. Bi kasuetan % 40ren gaineratik. Gipuzkoan europarren eta amerikarren proportzioak antzekoak dira, amerikarrena handixeagoa den arren.

Bizkaian boliviarrak eta kolonbiarrak herrialde amerikarretako nazionalitate duten herritarren % 39,5 dira; Gipuzkoan banaketa askotarikoagoa da. Araban nazionalitate amerikarra dutenak ez dira % 27ra iristen; horietatik laurden pasa kolonbiarrak dira.

Gipuzkoan frantses asko dagoenez, europarrak gehiago dira lurralde horretan besteetan baino. Errumaniarren proportzio handiena Bizkaian ematen da (europarren % 57 baino gehiago); Araban eta Gipuzkoan nabarmen txikiagoa da, % 29,5 eta % 33,9, hurrenez hurren.

Gipuzkoak du afrikarren proportzio txikiena hiru lurraldeen artean; horietako % 58 marokoarrak dira. Araban eta Bizkaian ere marokoarrak gehiago dira afrikarren artean, % 47 eta % 44,3 hurrenez hurren, baina Gipuzkoan baino gutxiago. Bizkaian eta Gipuzkoan hurrengo nazionalitate garrantzitsuenak aljeriarrak eta senegaldarrak dira; Araban, berriz, hirugarren nazionalitate garrantzitsuena nigeriarra da.

Txinatarrek asiarren % 59,9 dira Bizkaian; pakistandarrak, berriz, % 19. Gipuzkoan eta Araban pakistandarrak dira gehiengoak, batez ere, Araban. Bertan bizi diren asiarren % 60,3 dira.


**2016ko urtarrilaren 1ean, atzerrian jaito** eta Euskal AEn bizi ziren biztanleen kopurua 190.354ra heltzen zen, biztanle guztien % 8,8; Espainian, berriz, % 13,1ekoa zen. Puntu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoa Extremaduraren, Asturiasen, Gaztela eta Leonen eta Galiziaren pare dago. Autonomia-erkidego horietan atzerrian jaitotako herritarrak, gehienez, % 8ra heltzen ziren.

57 udalerrik Euskal AE osoarena baino atzerrian jaitotako pertsonen portzentaje handiagoa dute: 19 Arabakoak dira, eta haietatik 17 udalerrri % 10en gaineratik daude, gehienak Arabako Errioxakoak. Hauexek dira ehuneko handiena duten lau udalerrriak: Nabaridas (% 28ren gaineratik), Berriatua (% 14,6), Ordizia (% 14,2) eta Markina-Xemein (% 13,2).

Aitzitik, beste bost udalerritan ia ez da atzerritarrik bizi (% 2 baino gutxiago). Lau Gipuzkoan daude (Orexa, Elduain, Aduna eta Gaztelu), Tolosaldean, eta bat Araban (Harana/Valle de Arana). Biztanle gutxiko herriak dira. Adunak –horien guztien artean handienak– 465 biztanle baino ez ditu.

Hiriburuek Euskal AEko gainerako herriek baino atzerritar portzentaje handiagoak daukate: Gasteizek handiena dauka, % 11,8; Bilbok, berriz, % 10,4 eta Donostiak % 9,8, biztanle guztiak kontuan hartuta.

## 2. grafikoa. Atzerriar jaiotako pertsonak, udalerrien arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika 2016eko urtarrilaren 1ean

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62  
Euskal AEKo biztanleen udal estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago  
Euskal AEKo biztanleen udal estatistika. Datu-bankua